

0.PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

ZEIN DA GURE IDEIA: Ur azpian erabiltzeko aurikularrak

Gure proiektuaren ideia urarekiko guztiz iragazgaitzak diren aurikular bereziak diseinatzea eta merkaturatzea da. Produktu hau bereziki pentsatuta dago uretan edo hezetasun handiko inguruneetan kirola egiten duten pertsonentzat, hala nola igerilariantzat, surflariantzat edo dutxan musika entzutea gustuko duten erabiltzaileentzat. Gure helburua musika entzuteko esperientzia eroso, segurua eta kalitatezkoa eskaintzea da, ohiko aurikularrek konpontzen ez dituzten arazoei irtenbidea emanez.